



"Ohiko dimentsioetara" itzularazi gura dute Durangoko Azoka

930 kultur nobedade aurkeztuko dituzte aurtengo Durangoko Azokan; antolatzaileek "pandemiaren aurreko zenbaketara" heldu gura dute aurtengoa. 250 kultur ekitaldi baino gehiago izango dira Sauganbara, Irudienea, Szenatokia, Ahotsenea, Kabi@ eta Talaia guneeetan. Abenduaren 7tik 11ra izango da Durangoko Azokaren 57. edizioa. • 19



Elordik binakako nagusia eta Morgaetxebarriak promoziokoa jokatu dute

Kirola • Elordik lehenengoz jokatu du binakako txapelketa nagusia. Morgaetxebarria profesionaletan debutatu eta hile gutxira sartu dute promoziokoa. • 20



Mobilizazioak Durangaldean Azaroaren 25ean

Azaroak 25 • Durangaldeko mugimendu feministek eta instituzioek hainbat mobilizazio antolatu dute herririk herri indarkeria matxistaren kontra. Abadiñon, Berrizen, Durangon, Mallabian, Elorrion, Mañarian, Zaldibarren eta Zorrotzan kalera irtengo dute, gaur, indarkeria matxista salatzen. • 6

Correoseko eraikin zaharrea kultur etxea egingo dute

Durango • EH Bilduk 1,5 milioi euroko partida adostu du Espainiako Gobernuagaz Correoseko eraikin zaharrea kultur etxea egiteko. • 4



Langile baten galderak argindarraren prezioaren aurrean

Argindarraren prezioak ataka larri baten aurrean ipini ditu komertzioak. Ohartarazi dute ezingo diotela luzaroan eutsi

ARGINDARRA • EKAITZ HERRERA

Urtebete pasatu da argindarraren prezioak markak apurtzeari ekin eta argia garesti ordaintzeko joera egonkortu zenetik. Prezioa bilin-bolan dabil. Energiaren kudeaketa eztabaida iturri da eta testuinguru orokorrari begiratu azkar bat ematea nahikoa

da gaiak kezka sortzen duela konturatzeko: Durangaldeko instituzioek energia berriztagarriak sustatzeko proiektuak hasi dituzte. Norvegiako enpresa batek parke eolikoak eraikitze-ko proiektuak ipini ditu Eusko Jaurlaritzaren mahai gainean. Espainia aldean, gobernuak eskua

sartu du energia-prezioak apaltzeko politiketan. Eta Ukrainan energiaren prezioari eragiten dion gerra bat dago, hartu-eman geopolitiko konplexuei eragiten diena mundu osoan.

Itolarria komertzioetan

Horrek guzti horrek bete-betean eragin die eguneroko martxan tipi-tapa dabilzan komertzio txikiei. Ondotxo dakite honako hau: urruti dituzte energia garestitzearen faktoreak, baina etxe barruan itolarria igartzen dute. Horregaitik, kalera irten eta mikrofonoa ipini diegu joera makroekonomiko erraldoien aurrean hauskorrak diren komertzioei, zero kilometroa osatzen duten kideei, eskualdeko sare soziala (egiazko sarea, digitala ez dena) osatzen dutenei.



Zentral elektriko bat Abadiñoko San Antolin auzoan.

"Eusten gabilta, baina kontua da noiz arte eutsi ahalko diogun"

Durangoko Ibaizabal tabernako kideei hirukoiztu egin zaie argindarraren faktura, urtebetean. Argindarraren prezioaren bilakaera "beldurgarria" izan dela diote

OSTALARITZA • E.H.

Joseba Lorenzo Durangoko Ibaizabal tabernako arduraduna da. Argindarraren prezioagaz kezkatuta dago eta egoera luzatuko den beldur da. "Mundu guztiari lez, guri ere nabarmen eragin digu argindarraren prezioaren igoerak. Faktura hirukoiztu egin zaigu urtebetean. Azkenengo faktura orekatua iazko azaroan ordaindu genuen. Gogoan dut iazko abenduan denak egin zuela gora, eta urtarrila terriblea izan zela. Ordutik honako bilakaera

beldurgarria da", azaldu du. Aire girotua, sukaldeko labeak, hozkailuak,...kontsumo energetiko handia dute tabernan. "Gauzak egiterako orduan beldur gehiago duzu, tentuz ibili behar duzu. Oraingo eusten ari gara, baina kontua da zenbat denboran eutsi ahal diogun", esan du. Prezioak igotzeari buruz, honakoa dio Lorezok: "Urtero legez, prezioak apur bat igo ditugu, baina inola ere ez argindarra edo gainerako gastuak igo diren proportzio berean".



Ibaizabal taberna izen bereko auzoan dago.

"Hile amaierara ailegatu eta negozioa ez zarratzeko borroka konstantea da hau"

Rosi Navarrok Durangon zeukan okindegia itxi behar izan zuen kostuengaitik. Orain Iban Zubizarretagaz dabil lanean, Zaldibarren



OKINDEGIAK • E.H.

Rosi Navarrok okindegia zarratu behar izan du argindarraren prezioagaitik. Ezin izan dio labeek kontsumitutako energiaren prezioari aurre egin. Orain, Zaldibarko Zubizarreta ogi-lantokian topatu du lana. Alde biek, bai Navarrok eta bai Iban Zubizarretaren lantegiak, indarrak batu dituzte ataka larri honen aurrean. Navarrok enplegua mantendu du Zubizarretari esker, eta Zubizarretak negozio lerro berri bat sortu du Navarrori esker: gozogintza.

Rosi, zerk eraman zintuen Durangon zeneukan okindegia zarratzera?

Lehengaien prezioak eta argindarraren gorakadak. Baina, funtsean,

argindarrak. Faktura hirukoiztu egin zitzaigun. Egoera horretan, negozioa ez zen bideragarria. Ezin izan genion aurre egin.

Zelako fakturak ziren?

Orain urtebete, 900tik 1.200 euro artean pagatzen genuen argia. Baina negozioaren azken zatian, 2.500etik 4.000 eurora artean ordaintzen genuen.

Noiz esan zenuen: "Kito, honaino heldu naiz"?

Abuztuan. Uda sasoia, uztaila eta abuztua, izugarriak izan ziren. Zerbitzu minimoa eskaintzen genuen, labeak hiru orduan piztuta. Galerak izaten hasi ginen.

Eta, halako batean, beste lanpostu bat lortu zenuen.

Bai. Lehenagotik ere banuen har-

tu-emana Zubizarreta okindegiko kideekin. Hemen lan egin nuen. Komentatu zidaten, gura banuen banuela berriro ere lan egiteko aukera. Durangoko lantegian lau behargin geunden eta horietariko bi hemen gaude orain, Zaldibarren. Gure bezeroak erakarri ditugu. Gure etorrera laguntzatxo bat da enpresarentzat.

Iban, zelan eragiten dizue argindarrak enpresan?

Denok gaude berdin. Saldu arren eta produktu eskaintza zabaldu arren, hile amaieran parra egitea lortzen dugu. Horri gehitu labe-txandaren batek oker irteten duela edo matxuraren bat dagoela. Hor galerak izango zenituzke.

Zenbat denboran eutsi ahalko diozue erritmo honi?

Hile amaierara ailegatu eta negozioa ez zarratzeko borroka konstantea da hau. Lan-karga gehiago hartuta, produktuak dibertsifikatzen gabilta bezero gehiagorengana ailegatzeko. Orain, Rosiri eskerrak, gozogintza ere lantzen dugu. Lehen ez geneukan zerbait da.

“Ez dugu argindarraren igoerak baldintzaturiko negoziarik egin gura”

Amaia Salazar Bilbao (Elorrio, 1982) Nukleo ile-apaindegiko arduraduna da. Zerbitzuen prezioak igotzea beste erremediorik ez dutela izango aurreikusten du

ILE-APAINDEGIAK • E.H.

Zelan daramatzazue argindarraren gorabeherak?

Egia esan, txarto. Prezioak ez igotzen ahalegintzen gabilta, baina igo beharko ditugula aurreikusten dugu, bestela ezingo dugu-eta aurrera egin. Izurri garaian prezioak igo genituen, batez ere behin erabili eta botatzeko produktuak ordaindu ahal izateko. Joera horri eutsi eta horrela ibili gara tiraka.

Zenbat igo zaizue argindarraren faktura?

Bikoiztu baino gehiago egin zaigu.

Igoera horrek zelan eragiten dizue maila pertsonalean?

Prezioaren gorakada horri nire poltsikoagaz aurre egiten diot. Makinak, tintak, produktuak, guztia-aren atzean dago argindarra. Baina edozein mailatan dago hori. Erosketa orokorrak egitera zoazenean ere bai. Beraz, zenbat igo behar ditut prezioak? Nik arazo bat dut hor. Izan ere, ez dut argindarraren

gorakadak baldintzaturiko negoziarik egin gura. Zenbat igo behar dut zerbitzu bakoitzaren prezioa galtzen ez irteteko baina neurritz kanpora ez aprobetxatzeko?

Bezeroek zer esaten dizuete?

Batzuek komentatzen didate ea

noraino helduko garen garestitze horregaz. Noiz esango dugun “tira, honaino”.

Hartu behar izan duzue neurririk energia aurrezteko?

Bai. Eguzkiaren argia dugun bitartean amatatu egiten ditugu gelako argiak. Ispiluetakoak baino ez ditugu mantentzen. Trapuak sikatzeko makina erabiltzen genuen lehen. Orain esekitokia erabiltzen dugu.



Amaia Salazar Elorrioko bere ile-apaindegian.



Elorrioko gasolindegia.

Astebeteko greba Bizkaiko gasolindegietan

CCOO, LAB, ELA eta UGT sindikatuek grebara deitu dute abenduaren 1etik 5era. Gasolindegietako langileek “erosteko ahalmena bermatuko duen itun bat” gura

GASOLINDEGIAK • E.H.

Sindikatuak jakinarazi dutenez, gasolindegietako beharginen “erosteko ahalmena bermatuko duen” eta gaur egungo “lan baldintzak hobetuko dituen itun bat” gura dute. Beharginen egoera “kritikoa” da sindikatuen esanetan, eta patronalak “egun-

doko irabaziak” izaten ditu. Alde biek hiru urte daramatzate hartu-emanetan, ituna zelan berri-erabakitzeko. Oraingoz, baina, negoziazioek ez dute fruiturik eman. Negoziazioa “blokatzen” ibiltzea egotzi diote patronalari. Horregaitik, lanuzteak egingo dituzte abenduaren 1etik 5era.

Hitzen, ekintzen eta erimen eztanda.
Herri bat BERRIaren kulturaren plazan.



Izan BERRIAlagun 6 hilabetez 50 euroan eta eraman BERRIaren agenda opari



Asteko ikuspegia

Bietako bat aukeran



Eguneko ikuspegia

Berria.eus/berrialaguna

* Abenduaren 20 arte • (0034) 943-30 43 45

berria zuk badakizulako

EH Bilduk 1,5 milioi euroko diru partida adostu du Espainiako Gobernuagaz Correoseko eraikinean kultur etxea egiteko

EH Bilduk Hego Euskal Herriko hainbat herritarako partidak adostu ditu aurrekontuetan

DURANGO • JONE GUENETXEA

EH Bilduk azaldu duenez, 1,5 milioi euroko diru atala adostu dute Durangoko Correoseko eraikin zaharrean kultur etxea egiteko. Azpiegitura hori ekintza artistikoetarako eta gazteen ekintzetarako erabiliko dutela azaldu dute.

Oharrean adierazi dutenez, "EH Bilduk Hego Euskal Herriko hainbat herritarako partidak lortu ditu aurrekontuetan, trantsizio ekologikoan, kulturean, zaintzan, kirolean eta tren azpiegiturretan inbertsioak txertatuta". Guztira, 480.466.000 milioi euro inbertituko dituzte Hego Euskal Herriko hainbat herritan. "Araba, Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroako udalari eta hirientzat "lehetasunezkoak diren proiektuak" biltzen ditu akordioak. "Guztiak herritarrek hainbat hamarkadatan eskaturikoak dira", azaldu du EH Bilduk.

Ima Garrastatxu alkateak azaldu duenez, "Espainiako Gobernuagaz lorturiko akordio honek behin betiko babesa ematen dio

proiektua gauzatzeko. 2020ko udan, Correoseko kultur etxe berrirako aurreproiektua idatzi genuen. Pandemiak proiektu hau geldiaraztera behartu gintuen, eta orain akordio honek proiektu berri hau finantzatzeko aukera emango digu, Durangok kultur etxea izatea ekarriko du".

"Jaustear zegoen beste eraikin bati ere irtenbidea emango dio-

gu horrela, Ezkurdiko pilotalekuagaz, Fundifes-egaz, Uribarri 23agaz, San Agustin ospitaleagaz edo Ezkurdiko kioskoagaz egin dugun antzera. Durangoko gobernatzeko modua aldatzera eta durangarren bizimodua hobetzera gentozela esan genuen, eta pausorik pauso, baina erabakitazuz, aurrera jarraitzen dugu", gaineratu du Garrastatxuk.



Correoseko eraikin zaharra udaletxearen parean dago, Durangoko Alde Zaharrean.

Zaratengaitik gose greban zegoen herritarra eta Durangoko Udala akordio batera heldu dira

Tabernako musikak ez ziola lorik egiten uzten salatu du; udaleko ordezkariekin batu ostean amaitu du gose greba

DURANGO • J.D.

Durangoko Kalebarrian bizi den Iker Fernández Cristobalek (Zorrotza, 1978) gose greba hasi zuen astelehenean udaletxeko atarian. Gau giroko taberna bateko zaratak atsedean hartzea galarazten ziola eta, irtenbide bat eskatzen zion udalari. "Tabernako musika nire etxeraino heltzen da. Ezin dut lorik egin", zioen.

Eguazten goizean udaleko ordezkariekin batzartu zen. Han

jasotako azalpenekin gustura geratu zen eta, ondorioz, une hartan bertan gose greba amaitzea erabaki zuen. "Batzarra oso ondo joan da eta emankorra izan da. Zinegotzien partetik benetan jarrera ona ikusi dugu. Gainera, aurrera begirako pauso batzuk adostu ditugu. Besteak beste, esan digute enpresa espezializatu batek zarata neurketak egingo dituela nire etxibizitzan", adierazi zuen bizilagun durangarrak.



Iker Fernández udaletxeko atarian, astelehen goizean.

Jesuitak ikastetxeko Asier Martínez Kroazian egon da, Europak elikadura nahasmenduei zelan aurre egin diezaiekeen aztertzen

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Jesuitak ikastetxeko Asier Martínez Uriarte ikaslea Kroazian egon da, Europar Batasuneko beste hainbat ikaslegaz batera European Youth Parliament (Europako Gazteen Parlamentua) egitasmoan parte hartzen. Zagreb hiriburuan elikadura nahasmenduen gaia landu du, Europa osoko beste hamar bat kideguz batera. "Europak elikadura nahasmenduen aurrean zein politika egin ditzakeen aztertu dugu.

Gaiari buruz dokumentatu eta gero, taldeka, beste hamar bat kideguz egon naiz gaia eztabaidatzen, argudiatzen eta proposamen politikoak lantzen", azaldu du Martinezek. "Oso zehatza izan behar duzu zure proposamenekin. Gero, gaiak aurrera egiten badu proposamena Europako Parlamentura eramaten da, ordezkari politikoek han landu dezaten", gaineratu du. European Youth Parliament Gobernu Kanpoko Erakunde bat da, gazteak

Europar Batasunera gerturatzeko helburua duena. Egitura hainbat eremu geografikotan banatuta dago. Hortik aurrera, egiturak Europako estatuatarako bidea egiten du. Martinezek Bilboko eta Huescako (Aragoi, Espainia) jardunaldietan parte hartu du, hango ordezkari komiteetan. Topaketa horietan izandako arrakastari eskerrak, Zagreben finalista lez jokatu du. "Oso esperientzia aberasgarria" izan dela dio.



Asier Martínez, Zagreben, Kroaziako eta Europar Batasuneko banderen ondoan.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2022ko azaroaren 25a
21. urtea - 915. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



Plazan egurrezko estaldura bat jarriko dute, besteak beste.

Durangoko EAJk 2023ko udal hauteskundeetarako zerrenda aurkeztu du

Mireia Elkoroiribe izango da zerrendaburua. Hautagaiek "esperientzia" eta "ilusioa" dituzte, jeltzaleen esanetan

DURANGO • E.H.

Durangoko EAJk datorren urteko udal hauteskundeetara aurkeztuko diren hautagaien zerrenda plazaratu du. Mireia Elkoroiribe izango da zerrendaburua, beste 22 hautagaigaz batera. Zerrendak "esperientzia", "kudeaketa gaitasuna" eta "ilusioa" batzen dituela dio EAJk. Izen berriez gainera, hautagaien artean gaur egun

Ocejak, Escotak, Sergiok, Ortégak eta De Iralak hautagaitza errepikatuko dute

udalean zinegotzi diren kide batzuk daude. Adibidez, Sara Oveja, Josune Escota, Jon Sergio, Mikel Ortega eta Joana De Irala. Ainhoa Ortuetak eta Malen Urkulluk ez dute hautagaitza errepikatuko.

Martxan da Kaitana plaza eta goialdeko auzoak lotzen dituen igogailua

Azpiegitura berriak gerturatu egingo ditu erdigunea eta Santa Ana, eta Andrandi eta Jauregizahar auzoak

ZORNOTZA • E.H.

Zornotzako Udalak amaitu du Kaitana eta goragoko auzoak, Santa Ana, Andrandi eta Jauregizahar, irisgarriago egiteko igogailu berria. Nukleo bertikal batek eta pasabide horizontal batek osatzen dute azpiegitura. Eraikitze lanetan behealdeko eremua birdisei-

natu eta arrapala atondu behar izan dituzte, besteak beste. Anartz Gandiaga hirigintza zinegotziak azpimarratu duenez, udalak pausoak ematen jarraituko du Zornotza "oztopo arkitektonikorik bako herria izan dadin". Udalak 780.000 euroko inbertsioa egin du azpiegitura berrirako.



Anartz Gandiaga eta Ainhoa Salterain zinegotziak.

Zornotzako EH Bilduk "multifuntzionala" izango den kirolgunea egitea proposatu du

ZORNOTZA • E.H.

Zornotzako EH Bilduren iritziz, gobernu taldeak esku artean duen plan orokorrak hainbat "arriku" du. Koalizioaren esanetan, planak populazioaren hazkundera aurreikusten du, baina ez zerbitzuak areagotzea. "Ez gara ezer berria esaten ari. Askotan esan dugu ez dagoela herritar eta elkarten beharri- zanak asetzeko nahikoa kirol ekipamendurik. Ez da arazo horri errotik heltzeko planik aurreikusten", kritikatu du koalizioak. Hori dela eta, Urgozo kiroldegia proiektua barik koalizioak "kirolgune multifuntzional bat" egitea proposatu du Berezikoetxen. Horrek erantzungo lieke, EH Bilduren esanetan, "herrian goraka doazen kirol ekipamenduen beharri- zanei". Horrez gainera, biztanleriaren gorakadari buruz hausnartzera deitu dute. Izan ere, plan berriagaz Zornotzak 3.000 biztanle gehiago izan ditzake etorkizunean. "Hau da gura dugun herri eredia? galde- tu du EH Bilduk.

BETI GERTU!

ELORRIORA

HEMENDIK

Begiratu aukerak gure webgunean:
www.zarateyelexpe.com
Tel.: 946 816 673
Bixente Kapanaga 19, beh.
48215, Iurreta

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Gaur, azaroak 25, Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna dela eta, Durangaldeko herritarrek kalera irtengo dute indarkeria matxistari aurre egin eta feminismoa oinarri duten neurriak eskatzeko. Udalerrri bakoitzeko talde feministek zein instituzioek mobilizazioak, adierazpen instituzionalak eta bestelako ekitaldiak antolatuta dituzte. Honako hauek dira herri bakoitzeko deialdi eta mobilizazioak, gaurko.

Abadiñon, Izpilikuak Talde Feministak deituta, manifestazioa egingo dute, 18:00etan, Txanporta plazatik hasita. Berri-zen elkarretaratzea egingo dute, 12:00etan. Udal plazan izango da. Manifestazioa ere egingo dute, 19:00etan, Olakuetatik hasita. Durangon adierazpen instituzionala irakurri eta lore eskaintza egingo dute, Ambrosio Meabe plazan. Ekitaldia 13:00etan izango da. DAFak, bestalde, manifestaziora deitu du arratsalderako. Mobilizazioak 19:00etan irten- gogoko du, Santa Anatik. Elorriarrak 18:00etan batuko dira, herriko plazan. Iurretan adierazpena irakurriko dute lehenengo (18:30), eta horren ondoren manifestazioa egingo dute. Askon- dotik hasiko dira. Mallabitarrek

Kalera irten dute, indarkeria matxistari aurre egiteko

Durangaldeko mugimendu feministek eta instituzioek hainbat mobilizazio antolatu dute herririk herri



lazko azaroaren 25ean Otxandion egindako elkarretaratzea.

elkarretaratzea egingo dute, 12:00etan, frontoiko aldapan. Eta mañariarrek 19:00etan, herriko plazan. Zaldibartarrek protestara irtengo dute, 18:00etan. Dominika Talde Feministak manifestazioa hasiko du ordu horretan udal plazatik.

Bestalde, Zornotzan elkarretaratzea egingo dute, udal plazan (12:00), eta manifestazioa Urgezotik hasita (19:00etan). Itaia antolakundeak mobilizazio bi egingo ditu: Durangoko Andra Marian 19:30ean eta Elorrioko plazan 19:00ean.

Euskaraldiari helduta, garaitarrek bat egin dute hizkuntza ohiturak aldatzeko erronkagaz

Garaiko bizilagun talde batek familia argazkia egin zuen domekan, egitasmoagaz bat egin dutela adierazteko



Garaitarrek joan zen domekan atera zuten argazkia.

GARAI • E.H.

Euria zarra-zarra ari zuen. Eta zer? Ez zion ardua. Joan herriko plazara, ipini ilaran, hartu hizki erraldoiak eskuetan eta egin klik. Garaitarrek argazkia egin zuten joan zen domekan, herriko plazan, Euskaraldiagaz bat egin dutela adierazteko. Egitasmo erraldorik antolatu barik, argi utzi dute xumetasunetik ere euskarari arnasa emateko ekintza politikak egin daitezkeena. Irudikoa, kasurako. Garaitarrak ere "hitzez ekiteko garaian" sartu dira abenduaren 2ra arte.

Teslak entrega eta salmenta osteko zerbitzua dituen zentroa zabaldu du Iurretan

Konpainia estatubatuarrak Teslaren hainbat automobil modelo ikusteko 'showroom'-a ere baduela azaldu du

IURRETA • A.B.

Tesla konpainiak Euskal Herriko lehenengo Tesla Center kontzesionarioa zabaldu du Iurretan. Azpiegitura berriak entrega eta zerbitzu gunea ditu, eta hainbat Tesla automobil modelo ikusteko 'showroom'-a ere bai. Salmenta osteko zerbitzua ere ipiniko du-

te martxan, abenduaren 1ean. Gidatze-probak egiteko informazioa eskatzeko aukera ere badago, konpainiak jakinarazi duenez.

Zerbitzu hauek batzen dituen Teslaren lehenengo zentroa da Euskal Herrian. Espainian bost daude.



Gidatze-probak egiteko informazioa eskatu daiteke Tesla Center berrian.

Azoka Solidarioako materiala batzen hasi dira Iurretan

Abenduaren 12tik 16ra egingo dute Azoka Solidarioa

IURRETA • A.B.

Abenduaren 12tik 16ra bitartean VIII. Azoka Solidarioa egingo dute Iurretan. Hasi dira azokarako objektuak batzen. Jostailuak, bitxiak, arropa, dekorazio elementuak utzi daitezke, besteak beste, Ibarretxe kultur etxean. Abenduaren 2ra bitartean batuko dituzte donazioak, 09:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 20:00etara. Azokan baturiko dirua JAED gizarte laguntza elkarteari emango diote.



Kultur etxean egingo dute Azoka Solidarioa

Azaroan Berrizen erosteak saria du!

DOAN

Informazio gehiago: www.berrizkometerkatari.eus

AZAROAREN 7tik 27ra lortu Berrizko irudiak dituzten 3 katiluren bilduma

***KANPAINAREN OINARRIAK:**

Pertsona bakoitzeko katilu bat oparitu-ko da Berrizko establezimenduetan gutxienez 30€-ko erosketarekin (beharrezkoa da establezimenduetan ezberdinetako 3 erosketarekin aurkeztea).

07-13 azaroa: 1 erredua
14-20 azaroa: 2 erredua
21-27 azaroa: 3 erredua

Kanpainak 2022ko azaroaren 7tik 27ra bitartean egindako erosketetarako bakarrik balio du edo katiluk amaitu arte.

informazio gehiago:
www.berrizkometerkatari.eus

MUSIKALDIA

ABENDUAK 2
19:00 KULTUR ETXEAN
"MIKEL AZPIROZ - ISLAK"



PLAZA MUGATUAK:
SARRERA GOBIDAPENAREKIN

Gonbidapenak Ibarretxe Kultur Etxean jasoko dira ikuskizunaren aurreko astean edo egunean bertan 18:30etatik aurrera.

IURRETA

Iurreta
Eleizateko Udala

Bizkaia
Eusko Legebiltzarra

Osasun gida



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**

 **Odontologia**
PSE: 26/22

viteri
HORTZ-KLINIKA
Konfiantzazko hortz klinika Durango

**DIAGNOSTIKO ZEHATZA EGITEKO ETA,
HORRELA, TRATAMENDU ERAGINKORRA
ETA SEGURUA ESKAINTZEKO BEHAR
DEN TEKNOLOGIA DAUKAGU.**

Ordutegia:
Astelehenetik ostiralera: 10:00 - 14:00 | 16:00 - 20:00
Larunbata: hizordua hartuta
944 14 80 36 | 626 18 30 30
Askatasun etorbidea 15, 48200 Durango, Bizkaia
www.clinicadentalviteri.com

 **Optometria**
PSE: 162/13

**Naiia
Zabala
Azumendi**
11587 kol. zk.

keinu

- Optimetrian teknika aintzindariak
- Kontaktologia • Haurren ikusmena
- Ikusmen terapia • Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia • SENA estimulazio neuroauditiboa • Orto-k

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 94 622 50 99
www.keinuoptometriazentroa.com

 **Podologia**
PSE: 148/13

**PAUSOZ
Podologia
Klinika PAUSO**

Goiatz Murua
kol. zbk. 147
Ainhoa Elorza
kol. zbk. 238
Nerea Rodriguez
kol. zbk. 329

Kiropodia, onikopatia, alterazio dermatologikoak eta ibilerako alterazioak
Telefona: 946203630
Monago Torre 4, behe 48200 durango

 **Fisioterapia**
PSE: 57/16



pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetorre, 2D
DURANGO
pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

 **Odontologia**
PSE: 145/13



clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

Dakizuenek, betidanik izan gara adituak esterilizazioan.
Orain, inoiz baino gehiago, den-dena prestatu dugu zuen segurtasunerako
{ Muruetorre, 2C blokea, behe - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194
454uecdental@gmail.com

 **Estetika**
PSE: 16/09

 **AGIRRE KLINIKA**
MEDIKUNTZA ESTETIKOAK
www.medicinaesteticaDurango.com

Obesitatea-zelulitisa, Laserra:
depilazioa, barizeak, tatiujeak behin betiko kentzeko laserra..
Adinaren kontrako tratamenduak:
orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6 / 48200 - DURANGO
Tel.: 946 810 387

 **Fisioterapia**
PSE: 119/13

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**
Ane Legorburu Munitxa

Pilateseko klaseak eskaitzen ditugu.
Saio pertsonalizatuak dira, talde txikietan.

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma MATIENA-ABADIÑO
944 657 132 - 686 906 374

PSE: 119 -13



Udaletxe azpian bizitokia muntatu dute.

Atxondon teiltupe bat izan arte, udaletxe azpia Harrerakoen bizitoki

Udalak azaroaren 3ko batzarrean adostutako akordioa bete arte bertan jarraituko dutela aurreratuko dute

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Hotza eta euria heldu dira Durangaldera, eta azken egunotan ez da giro kalean egiteko, are gutxiago kalean lo egiteko. Atxondon, zenbait herritarrek udaletxe azpian lo egiten dute; bertan bizi dira.

Urriaren 6an, Atxondoko Udalak Apeko aterpetxera ezin zirela sartu esan zieten Harrerako kideei, eta harrezkero kalean daude. Hasieran, kanpalekua muntatu zuten udaletxe azpian, eta bertan egon ziren zenbait egunetan. Azaroaren 3an, udalagaz batzar bat egin ostean eta zenbait konpromiso hartu eta gero, kanpalekua desmuntatu zuten. Baina udalak batzarreko konpromisoak

bete ez zituela ikusi zutenean, berriro kanpalekua muntatzea erabaki zuten. Azaroaren 15ean bizitokia prestatu eta azaroaren 18tik hona udaletxe azpian lotan daude Harrerako kideak. "Ez dugu Atxondoko Udalaren berririk, baina guk, bien bitartean, zenbait agentegaz kontaktuan jarraitzen dugu; Mankomunitateagaz, esaterako. Herrian lanketa bat egiten eta herritarrek sentsibilizatzen ere jarraitzen dugu", azaldu dute Harrerako kideek.

Hori horrela, barikuro udaletxe azpian bilerak egiten dituztela azaldu dute, eta domekan, esaterako, ipuin kontalari bat egongo dela, besteak beste.

Atxondon nekazaritza eta artisautza azoka egingo dute abenduaren 4an

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Abenduko lehenengo domekan jai giroa izaten da Atxondon, Apatamonasterioko plaza inguruan hain zuzen ere, eta aurten ere horrela izango. Abenduaren 4an, XXV. Nekazaritza eta Artisautza Azoka egingo dute bertan, goizean hasi eta eguerdira bitartean.

Aurreko urteetan lez, azoka honetan artisauen lanei eta inguruko nekazarien produktuei tokia egingo zaie aurten ere. Atxondoko Udaletik alkatetza dekretu bidez jakinarazi dute azokan ez dela ganadurik edo abererik egongo.

Azokara bertaratzen diren bisitariak jateko aukera ere izango dute, lumagorri oilaskoa.

Erosketa Bonuen Kanpaina azaroaren 30ean amaituko da

Elorrioko Udalak eta EMEk azaro hasieran ipini zuten martxan kanpaina, herriko merkataritza sustatzeko

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Herriko merkataritza sustatzeko helburuagaz, Elorrioren 2022ko Erosketa Bonuen Neguko Kanpaina ipini zuten martxan azaro hasieran, eta kanpaina amaierara heltzen dabil dagoeneko. Hala ere, bonuak oraindino erabili ez dituztenek egun gutxi batzuk izango dituzte hauek erabiltzeko. Hain zuzen ere, bonuak azaroaren 30era arte egongo dira erabilgarri. Elorrioko Udalak eta EMEk

(Elorrioko Merkataritza Elkarteak) antolatutako neguko kanpainako bonuen bitartez, elorriarrek 20 euro ordainduko dute 30 euroko erosketa bategatik. Gainera, herritarrek birritan baliatu ahaliko dute deskonturako aukera, edo bonu biak erosketa bakarrean erabili ahal izango dituzte. Kasu hauetan, erosketak 60 eurokoa izan beharko du gutxienez. Horrez gainera, bonuok komertzio bakarrean edo bitan erabili daitezke.

Abadiñarrek aurrekontu parte hartzaileetan aurrez aukeraturiko 13 proposamen aukeran

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Astelehenetik abenduaren 11ra bitartean, aurrekontu parte hartzaileetarako diru partida zertan erabiliko den erabaki dezakete abadiñarrek. Guztira, 100.000 euro. Aurretik hautaturiko 13 proiekturen artean erabaki beharko dute herritarrek. Hauek dira proiektuetariko batzuk: komun publikoak egokitzea, barandak hobetzea, autokarabanentzako zerbitzu gunea sortzea, landa bideak hobetzea, argiteria hobetzea eta bizikletak garbitzeko eremua

hobetzea, besteak beste. Aurrekontu hauetan 16 urtetik gorako herritarrek parte hartu ahal izango dute, Errotan, Udal Mediatekan eta herriko auzoetan ipinitako hauteskontzientzaren bitartez. Baita Internet bidez ere.

Aurrekontuei 25 proposamen

Bestalde, asteon EH Bilduk prentsa ohar bidez azaldu duenez, gobernu taldeak 2023ko aurrekontuak aurkeztu dizkie, eta aurrekontu horiei 25 proposamen egin dizkie koalizioa subiranistak. "Abadiño-

ko EH Bildutik 600.000 eurotik gorako moldaketak eta ekarpenak egin ditugu", azaldu dute. Besteak beste, honako proiektu hauek ipini dituzte euren proposamenen: Matienako Haur Hezkuntzako eraikina berritzeko proiektua idaztea, Zelaietako mugikortasunaren berrantolaketa birmoldatzea, Astolako bizilagunek aparkalekuekin duten arazoak konpontzea eta Muntsaratzeko lursail batean alokairuzko etxebizitza sozialak eraikitzeko azterketak egitea.

Ainke, Ezta Ilen, Katu eta DJ Alus zapatuan Abadiñoko Elkartasun Asteburuan

Sokatira erakustaldiagaz emango diote hasiera egunari; eguerdian herri bazkaria egongo da

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR


Abadiñon Elkartasun Asteburua egiten dabilta. Bihar, esaterako, sokatira ikuskizunagaz emango diote hasiera egunari, 12:00etan. 13:00etan elkarretaratzera egingo dute, eta ondoren trikipoteoa. 14:30ean bazkaria egongo da frontoian, eta gero bingo musikala, argazki eta postal bidaltzea eta karropoteoa. Ainke, Ezta Ilen eta Katuren kontzertuagaz eta DJ Alusegaz emango diote amaiera egunari. Kontzertua 20:00etan hasiko da.




Ezta Ilen taldeko kideak. UNAI URIZAR



Berriotxoa kaleko argazkia.



Athleticen eta Osasunaren arteko partidarako sarrerak San Mames VIP Area-ko palkoan



Anbotokideen artean San Mames VIP Areako palkorako sarrera bikoitz bat zozkatuko du Anbotok. Egin zaitetz Anbotokide eta zatoz esperientzia zoragarri hau bizitzera.

Zozketan parte hartzeko azken eguna: abenduaren 21a.

Okm:
*batzen gaituen
distantzia*

Egin zaitetz Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



**anboto
kide**

Oraingo, 110 otxandiarrek erakutsi dute interesa Oreka komunitate energetikoan parte hartzeko

Azterketa bat egin dute interesdun bakoitzak ipini beharko lukeen diru kopurua kalkulatzeko eta instalazioaren tamaina jakiteko

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Herritarrei energia berriztagarrietako trantsizioan laguntzeko helburua duen Oreka energia komunitatea aurrerapausoak ematen dabil apurka. Kooperatiba urtea amaitu aurretik eratzeta da asmoa. Udala Oreka bazkide-laguntzaile izango da. Bien bitartean, komunitatean aurrera eramango dituen proiektuak lantzen dabilta.

Lehenengo proiektuan, zenbait instalazio fotovoltaiko ipini gura dituzte, herritarrek euretatik hartzeko argindarra. Martxoan izen-emateari ekin zioten, interesdunen kopurua jakiteko, eta 110 bat otxandiarrek erakutsi zuten interesa. Segidan, azterketa bat egin zuten bakoitzaren kontsumoa zenbatzeko eta, horren arabera, instalazioen hedadura kalkulatzeko. Joan zen astean batzar informatibo bat antolatu zuten azterketaren emaitzen berri emateko. Bakoitzaren kontsumoa oinarri hatuta, zer kapital aportatu beharko luketen jakinarazi zitzaizen interesdunei batzarrean. Horrez gainera, beste

datu batzuk ere eman zituzten, hala nola izena emandakoen energia kontsumoaren erdia estaltzeko 120 kilowatteko potentzia duen instalazioa beharko litzatekeela. Urtean 130.000 kilowatt/ordu sortuko litzuzke—. Orain interesdunek, euren aportazioaren zenbatekoa

jakinda, egitasmoan jarraitu gura duten ala ez jakinarazi behar dute Gabonen aurretik. Ondoren, 2023ko lehenengo hiruhilekoan diru laguntza eskaerak egingo dituzte Eusko Jaurlaritzan eta Espainiako Gobernuan. Horren berri jasotzen dutenean, instalazio en-

presei aurrekontu zehatzak eskatuko dizkiete. Ondoren, interesdunek ipini beharreko diru kopuru definitiboak kalkulatu dituzte eta orduan izango da baiezeko definitiboa emateko ordua, hurrengo pausoa egitasmorako kapitala ipintzea izango delako.



Joan zen astean egindako batzar informatiboko irudia. **OREKA**

Antxo eta Pantxa pailazoak bihar Mekoletan, Gaztainerre egunaren barruan

OTXANDIO • J.D.

Arkotxe kultur elkarteak pandemiagaitik bertan behera utzitako ekimen bat berreskuratuko du zapatu honetan Otxandioko Mekoleta auzoan: Gaztainerre eguna. Egitarauaren barruan, umeentzat eta familientzat aproposa den Antxo eta Pantxa ikuskizuna antolatu dute, 18:00etarako. Denbora

Azaroan estreinatutako 'Gurekin konektatu' ikuskizun berria ekarriko dute Mekoletara

Iuzean Antzarekin Dantzan antzezlanagaz ibili ostean, orain astebete *Gurekin konektatu* ikuskizun berria estreinatu zuten eta bira bat egiten dabilta berri aurkezteko. Mekoletakoa birako hirugarren saioa izango da, Portugaletekoaren eta Okondokoaren ondoren. Ikuskizuna amaitu eta gero txokolate beroa egongo da denentzat.

Izurtzan 'Zirriborro' clown ikuskizuna egingo dute gaur arratsaldean

Izurtzako erabilera anitzeko aretoan ikusi ahalko da antzezlanak; sarrera doakoa da

IZURTZA • J.D.

Izurtzako Udalak antolatuta, *Zirriborro* antzezlanak ikusteko aukera egongo da gaur, 18:00etan, Izurtzako erabilera anitzeko aretoan. Sarrera doakoa izango da denentzat.

Zirriborro clown antzezlanak Anduriña Zurutuzak eta Txefo Rodriguezek osatzen duten Badut konpainiarena da eta Gorka Ganso da obrako zuzendaria.

Anduriña Zurutuza liburu bat idatzi gura duen pertsonaiaren azalean sartuko da. "Paper zuriaurrean ipini da eta liburu bat idatzi gura du. Beste liburu batzuetan murgildu eta haietatik ideiak hartzen ditu. Azkenean, liburu bat idazteko prozesuan dauden emozio guztiak azaleratuko ditu", azaldu du Zurutuzak obraren inguruan. Hori guzti hori barbarik egin barik, testurik bako obra da eta.

Ikusleak liburu egiteko prozesuaren lekuko izango dira. Azkenean, lortuko ote du hainbeste desiratzen duen eta hainbeste

buruko min ematen ari zaion liburu idaztea? "Ezin da dena kontatu. Antzezlanak ikusten duenak desk-

brituko du", dio Zurutuzak herritarrei obra bertatik bertara ikusteko gonbita eginda.



Anduriña Zurutuza 'Zirriborro' obrako une batean. **BADUT**

Gaur emakumeentzako autodefentsa ikastaroa emango dute Mañarian

MAÑARIA • J.D.

Mañariko Udalak ekimen bat baino gehiago antolatu du Azaroaren 25eko egunari begira. Emakumeentzako autodefentsa ikastaroa da aurtengo egitarauan jasota dagoen ekitaldietako bat. Arlo horretan aditua

Azaroaren 25aren harira, elkarretaratzea egingo dute gaur, 19:00etan, Mañariko plazan

den Jaime Etxenagusia Prietok emango du ikastaroa, gaur, Mañarian. Aurretik izena eman dutenen artean eskainiko dute ikastaroa.

Bestalde, Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira elkarretaratzea egingo dute Mañariko plazan, 19:00etan, eta udaletik bertaratzeko eta ekimenen parte hartzeko deia egin diete herritarrei.

Berbaldia eta elkarretaratzea Mallabian, Azaroaren 25eko ekimenetan

MALLABIA • J.D.

Mallabian hainbat ekitaldi antolatu dute aste honetarako Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira. Gaurko elkarretaratzea da ekitaldietariko bat. 12:00etan batuko dira, pilotalekuko sa-

Domekan 'Indarkeriaren aurpegi guztiak' berbaldia egingo dute, Kontzejuzarrean

rreran, eta adierazpen instituzionala irakurriko dute bertan. Segidan, eskolako haurrek egindako leloak erakutsi eta indarkeriaren aurkako abestia kantatuko dute Berdintasun Kontseiluak antolaturiko ekimenen. Bestalde, domekarako 'Indarkeriaren aurpegi guztiak' izeneko berbaldia antolatu du Nahikari emakume elkarteak. 12:15ean hasiko da, Kontzejuzarrean.

Zaldibarko San Andres jaiak ospatuko dituzte asteburuan, Neguko azokagaz

Zaldibarko pentsiodunek botako dute jai iragartzeko txupina, gaur, 19:00etan; domekan Zaldibarko XXIII. Neguko Nekazari Azoka egingo dute, 11:00etan hasita

ZALDIBAR • A. M.

Zaldibarko San Andres jaiak ekin-goto diete gaur Zaldibarren. Pentsiodunek botako dute jaiak hasiera emateko txupina, 19:00etan, eta ondoren buruhandiak egongo dira. Gero, "pintxo solidarioak" egongo dira Olazarren, DJ Josemarik gunea girotzen duen bitartean. Gaztetxean ere antolatu dituzte ekintzak jai hauetarako. Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna dela-eta egin diren deialdietan parte hartzeko deia egin dute. Horrez gainera, gauean kontzertuak egongo dira gaztetxean bertan: Piztu, Labana

eta Ezta Ilen taldeek joko dute zuzenekoak.

Gaztetxeko kideek herri bazkaria antolatu dute zapatuko; 14:30ean hasiko da eta bertara baserritar jantzita joateko deia egin dute. Iluntzean, musika jartzaileak egongo dira: DJ Paki eta DJ PARY & Tiza. Bestalde, udaletxe ondoan Nikaraguako dantza taldearen erakustaldia egongo da, 18:00etan. Horren ondoren, Dantzatzeko prest! disko festa egongo da udaletxe alboan. 19:00etan, Benito Lertxundik kontzertua emango du Olazarren; Zaldibarko Korralaren 75. urteu-

rrenaren ospakizunaren barruan antolatu dute ekitaldi hau.

XXIII. azoka

Domekan izango da jaien plater nagusia: neguko nekazari azoka. Aurtengoa XXIII. edizioa izango da. 11:00etan zabalduko ditu ateak; ordu horretan, Eingou taldeak kalejira egingo du. Ordu horretan hasiko da baita ere arku taldearen ate irekien jardunaldia, Olazarren. Aurtengo San Andres jaiak borobiltzeko, azaroaren 30ean meza eta jubilatuen bazkaria egingo dute; 18:00etan Olazar txapelketako partiduak jokatu dira.



Aurreko azoka bateko irudia.

Iñaki Lejarreta zirkuituak Bizkaiko Federakundearen ikastaroa hartuko du

Zapatuan izango da BTT ikastaroa, 10:30ean hasita



BTT ikastaroa.

BERRIZ • A. M.

Bizkaiko Txirrindularitza Federakundeak oinarritzko tekniken BTT ikastaro bat antolatu du zapatu honetarako, azaroak 26. Berrizko Iñaki Lejarreta BTT zirkuituan izango da, goizean, 10:30etik 13:30era; +Ke FLOW Eskolak ere parte hartuko du ikastaroan. Printzipioz, txirrindularitzan federatuentzat zuzenduriko ekimena da. Hala ere, tokirik badago federatu bakoek ere parte hartu dezakete. Hamabost laguntzako tokia du ikastaroak.

Federatuek bost euroko inskripzioa ordainduko dute eta federatu bakoek 60 euro ordaindu beharko dituzte. Ikastaroak irauten duen hiru orduetan, bizikletaren settinga, bizikletaren gaineko posizioa, balaztatze teknika, oinarritzko mugimendu ereduak (sigi-saga, zortzikoak, malda desnibelduna), bihurtzetik euskarri pasabidea, bihurtzetik euskarri barik igarotzea eta trazadura baten azterketa teknika landuko dituzte, besteak beste.

anboto
kide

Anbotokideen
txokoa

AZAROKO ZOZKETAK



Hertzainak taldeak abenduaren 17an BEC-en emango duen kontzerturako bi sarrera bikoitz.

*Eman izena gure webgunean.



Aitzindariak dantza garaikideko ikuskizunerako sarrera bikoitz bat. Abenduaren 4an izango da San Agustin kulturgunean.

*Eman izena gure webgunean.

IRABAZLEAK

Errigorako otzara:

Kepa Gorordo Basaras

Benito Lertxundiren kontzerturako sarrerak:

Amparo Guillén Ibáñez

BBK Karpin Faunarako sarrerak:

Eukene Solaguren Carlos de Vergara

Alazne Sarrigoitia

Okm:

batzen gaituen
distantzia

Egin zaituz Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Bizkaiko metalgintzako beharginek bost eguneko greba deialdiari eutsi diote

Ituna berritzeko negoziatioek huts egin dute. Astelehenean hasiko dituzte grebak

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Metalgintzako ituna berritzeko negoziatioek huts egin dutela eta, sindikatuek beste bost greba egun antolatu dituzte. Astelehen honetan ekingo diete lanuzteei, abenduaren 2ra arte. Sindikatuen esanetan, FVEMek ez die "borrokan jarraitzea beste aukerarik utzi", orain arteko proposamenek "ez dutelako eros ahalmena bermatzen" eta patronalak "uko" egin diolako "langileen lan baldintzak hobetuko lituzketen bestelako



Sindikatuek babesa aderazi zioten grebetan zehar inputatutako behargin bati.

gaiak sartzeari". Bizkaiko metalgintzan hamazortzi bilera eta sei greba egun egin dituzte urtea hasi zenetik. CCOO, LAB, UGT, CNT eta CGT sindikatuek diote greba deialdiagaz aurrera jarraituko dutela, "hitzarmena lortzeko tresna bakarra dela sinetsita".

Behargin bat inputatuta

Sindikatuek elkarretaratzea egin zuten astelehenean, Durangoko epaitegien aurrean. Langile batak deklaratu egin behar izan du asteen, ekainean egindako grebetan inputatu lez. Sindikatuen esanetan, "Ertzaintzak gazte bat atxilotu zuen Iurretan, Arriandiko industrialdean", greba egunetan zehar. Atxilotua "elorriar gazte bat" izan zen. Sindikatuek ez dute argitu zer leporatzen dioten.

Politikan

Neskutz Rodriguez Ormazabal
Herriaren Eskubidea



Leihatilaz leihatila

Edozein egunetan egon daitekeen ohiko elkarriketa bat udaltxean:

- "Paper hauek entregatzera nator etxez etxe laguntza eskatzeko", edo "informazioa behar dut mugikortasun urriko aparkaleku-txartela eskatzeko", edo "begira, ezin al diezue kalean lo egiten duten pertsonen aterpetxean ostatu eman hotza datorenean"?

- Erantzuna: "Parkatu, baina hau Mankomunitatearen eskumena da".

- Barrero be! Bost axola niri nork daraman? Konpondu eta kitto.

Inor ez gara horrelako haserre-tatik kanpo geratzen leihatilaz leihatila bidaltzen gaituztenean. Batik bat, erakunde bakoitzaren zereginak, askotan, ez daude argi, bikoiztu egiten direlako edo bete behar dituenak ez dituelako betetzen. Nahaste horren adibidea Amankomunazgoa da.

Durangoko kasuan, milioi bat euro baino gehiago ordaintzen diogu urtero behargintzaren bidez enplegua sustatzeko eta gizarte-zerbitzuak kudeatu ditzan (etxez etxe laguntza, larrialdietarako laguntza ekonomikoak, biolentzia matxista jasan dutentzako arreta psikologikoa, mendekotasunaren balorazioa, etxerik gabeko pertsonentzako aterpetxea, etab.). Eta, bitxia bada ere, ez du "EAEn bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko azterlan"-ean parte hartu nahi izan, nahiz eta bere betebeharra izan.

Udalek kontratatutako zerbitzuen kudeaketan zentratu beharrean, EAJk nahiago du komunitate-espirtua baztertu eta Amankomunazgoko estatutuaren ez dagoen zeregin batean zentratu: enpresei laguntza eman.

Beraz, baliteke leihatilaz leihatila berriro ibiltzea

Durangaldea asteen

Durangoko udal zergak bere horretan jarraituko dute datorren urtean

DURANGO Durangoko gobernu taldeak dauden moduan utziko ditu 2023ko zergak. Horrek esan gura du, osoko bilkurak halantxik erabakitzen badu, dauden kopuruetan mantenduko direla Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga, Jarduera Ekonomikoena, Ibilgailuen gaineko Zerga eta Eraikuntza, Instalazio eta Obren gainekoa.

Bosteko 2022 erakusketa abenduaren 12ra bitartean egongo da ikusgai Zornotzan

ZORNOTZA Aurtengo erakusketa ibiltaria Bizi deitzen da eta pinturaren, eskulturaren eta marrazkiaren bitartez pentsamendu artistikora hurbildu gura du bisitaria. Erakusketa azaroaren 21etik abenduaren 12ra bitartean egongo da ikusgai, Zornotzako Zelaieta zentroan.

Durangaldea Enpresa Ekimena abenduaren 2an aurkeztuko dute jendaurrean

DURANGALDEA Eskualdeko ekonomia sustatzeko erakunde berria, DEK (Durangaldea Enpresa Ekimena), martxan ipini da. Durangaldea Mankomunitateak jakinarazi dutenez, eskualdean eragin handia izango duen proiektua da. Egitasmoa abenduaren 2an aurkeztuko dute jendaurrean, Abadiñoko Errota Kultur Etxean, 10:00etan.



Zabalarrako ereserkia Pirritxek, Porrotxek eta Marimototsek egin eta grabatu dute

DURANGO Zabalarra eskolan ereserkia sortu dute euskara eta Zabalarra eskola bera bultzatzeko. "Nortasuna duen eskola gara eta gehiago batuko gaituen abestia gura genuen", adierazi dute Zabalarra eskolako IGEko euskara batzordeko kideek. Abestia Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek egin eta abestu dute. Abestiaren sorkuntzan Joseba Sarrionandia eta Xabier Zabala ere izan dira. "Eurekin lan egitea oso erraza eta motibagarria izan da", gaineratu dute Zabalarra eskolakoeak.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Arrike
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

Ainara Urreta Jainaga

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 beheka - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

hitz artekalea 23, durango
946 810 776
liburudenda info@hitzliburudenda.com

Liburu aurkezpenak

Ahaztu baino lehen, ama
Mikel Etxaburu
Abenduak 7, eguaztena

Pozaren erdia
Harkaitz Cano
Abenduak 13, martitzena

19:00-tan, Durangoko Hitz liburu-dendan. *Doan

LEKUAN LEKUKO EGUTEGIA

Ohiko saltokietan salgai

2023

Durangaldeko egutegia

ABADIÑO	Petite Abadiñoako estankoa
ATXONDO	Kiosko Atxondo
BERRIZ	Egunon okindegia
DURANGO	Etxebarria prentsa denda Hitz Liburudenda
ELORRIO	Tximeleta gozoki denda
GARAI	Herriko taberna
IURRETA	Iurreta kopistegia
IZURTZA	Herriko taberna
MAÑARIA	Herriko taberna Talka
MALLABIA	Herriko taberna
OTXANDIO	Korostondo janari denda
ZALDIBAR	Imendia prentsa denda
ZORNOTZA	Ayerdi prentsa denda



Okm:

batzen gaituen distantzia



> anboto
kide

Abantailak

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

- %10eko deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

HITZ LIBURU-DENDA

- %10eko deskontua euskarazko liburuetan.

HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

- %15eko deskontua sarreran

IURRETA KOPISTEGIA

- %5eko deskontua eskola eta bulego materialean.
- %5eko deskontua musika, opari eta liburuetan.
- Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

KIROL ERROTA GIMNASIOA

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.

LANDAKO OPTIKA

- %15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean eta armazoi eta lenteetan.

MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

- % 5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan.

NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

- %5eko deskontua produktu guztietan.

URRIKE LIBURU-DENDA

- %5eko deskontua liburuetan
- % 10eko deskontua papergintzan

LA PERLA

- %15eko deskontua forman jartzeko talaso zirkuituan
- %10eko deskontua osasun, lasaitasun eta edertasuneko banakako tratamenduetan

NAHIA HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta radiografiatan



Okm: *batzen gaituen distantzia*

Egin zaitez anbotokide!

anboto
kide



'Porno'

ANTZERKIA **ELORRIO** :: Azaroak 25

Gizarteko dilema moralez hausnartzeko gonbitea

Urtezahar eguneko afariaren bezperan, gizon batek bere koinatua protagonista duen bideo bat ikusi du Interneteko orrialde erotiko batean, denak emanda, moztu batek txarto kamuflatuta. Mahats, kanpai eta senitarteko gau-jaiak ez du itxura onik. Horixe du abiapuntu gaur 20:00etan Arriola antzokian aurkeztuko duten *Porno* obrak. Familiako komedia transgresorea da La Roca producciones konpainiarena, apur bat basatia eta ikusleen barre-algarak sortzen dituena. Era berean, gizartean oso

presente dauden zenbait dilema moralen inguruan hausnartzera eramango ditu.

Familia normal batean sorturiko arazo baten bitartez, gizartean dauden kontraesanak plazaratuko dituzte *Porno* obragaz, moral bikoitzez eta hipokresiaz jositako gizartea dela erakutsi, zeinetan helduen %80k pornoa kontsumitu duten inoiz. Eta "denok sare sozialetako pornorik lizunenaren eta ohikoenaren partaide gara: pornografia emozionalarena", diote sinopsian.

Azaroaren 25ean

ABADIÑO manifestazioa
Mugimendu feministak deituriko manifestazioa, 18:00etan, Txanportatik.

ABADIÑO ikus-entzunezkoa
'Aketegiko Mari. Alpinismoa eta mitologia uztartzen' (Koke Lasa), 19:00etan, Txanporta kultur etxean. Ondoren, egileagaz solasaldia. Bertso afaria: Eli Pagola eta Unai Iturriaga, 21:30ean, Mendiolako Errekatxo elkartearen. Euskaraldiaren barruan.

BERRIZ elkarretaratzea
Elkarretaratze instituzionala 12:00etan, udaletxean. Manifestazioa 19:00etan udaletxetik Olakueta plazara.

DURANGO giza katea
Giza katea ikastetxeetako ikasleen laguntzagaz, 11:40an, Alde Zahararen. 'Aurre egingo dizueten emakumeak' (Sastrakako Emakumeak) A25eko abestia abestuko dute taldean Usue Martinezegaz batera, 11:50ean, udaletxeko plazan. Adierazpen instituzionala eta lore eskaintza, 13:00ean, eraildako emakumeak oroitzeko gunean, Anbrosio Meabe plazan. Manifestazioa, 19:00etan, Santa Ana plazan. Durangaldeko Autodefentsa Feminista Asanbladak deituta. Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna.

ELORRIO mobilizazioa
'Elorrioren indarkeria matxistarik ez' lelopean mobilizazioa, 18:00etan herriko plazan. Elorrioko Asanblada Feministak deituta. Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna.

IURRETA deialdia
Pegatina eta puntu moreen banaketa, goizean, Ibarretxe kultur etxean eta HAZen. Manifestazioa, 11:15ean, ikastetxeetatik herrigunera. Beldu Barik 2022 tokiko lehiaketa, 18:00etan, Askondon. Elkarretaratzea, 18:00etan, Askondon, Auskari neska gazteen taldeak deituta. Adierazpen Instituzionalaren irakurketa 18:30ean, Askondon. Elkarte eta norbanakoen parte hartzeagaz. Ondoren, manifestazioa. Bitartean, 'Lorraz lapurtuak' omenaldia. Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna.

IURRETA ipuinak
'Liburutegian aurkitu ditudan altxorrak' (Iñaki Carretero), 17:00etan, herri bibliotekan (3tik 5 urtera arteko umei zuzenduta). Bigarren saio bat, 17:45ean (sei urtetik gorakoentzat).

IURRETA ipuinak
'Antes de Eva' (Alejandra Venturini-Argentina) helduentzako ipuin kontaketa, 19:00etan, herri bibliotekan. Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna.

MALLABIA elkarretaratzea
Elkarretaratzea eta adierazpen instituzionala, 12:00etan, frontoiko aldapan. Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna.

ZALDIBAR sanandresak
Zaldibarko pentsiodunek jaiak iragartzeko txapligoa jaurtiko dute, 19:00etan, udaletxeko balkoitik. Ondoren, buruhandiak. Pintxo solidarioak + DJ Josemari, 19:30ean, Olazarren.

ZORNOTZA elkarretaratzea
Elkarretaratzea eta adierazpen instituzionala, 12:00etan, udaletxeko plazan. 'Pronoia' (Oihulari Klown konpainia), 20:00etan, Zornotza Aretoan. Berdintasun Scape Room, 21:00etan, Gazte Txokoan. Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna.

Azaroaren 26an

ABADIÑO kontzertuak
Elkartasun eguna: Sokatira ikuskizuna (Abadiño Sokatira Taldea), 18:00etan, Pino plazan (euria bada, frontoian). Elkarretaratzea 13:00etan, BBK aurrean. Trikipoteoa, 13:30ean, Taberna Zaharrian hasita. Herri bazkaria, 14:30ean, frontoian (txartelak: Tipi-Tapan, Mesoian eta Abarketeruenean).

Ondoren, bingo musikala eta Durangaldeko euskal presoek argazki eta posta bidaltzea. Karropoteoa. Ainke + Ezta Ilen + Katu + DJ Alus, 20:00etan, Zalduerrekian.

ABADIÑO antzerkia
'El tiempo de las torturas' (Dora Cantero), 19:00etan, Errota kultur etxean.

BERRIZ ipuinak
'Aniztasunerako Klown kontuak' (Sexune), 12:15ean, Berrizko Kultur Etxean.

BERRIZ musika
La Basu + J.Martina, 19:00etan, Berrizko Kultur Etxean. Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna.

DURANGO jardunaldia
Ume Alaia-Euskadik antolatutako jardunaldia. Familien batzea eta ongietorria, 17:30ean, San Agustin kulturgunean.

'La Suerte' (Perez&Disla konpainia) antzezlan, 18:30ean. Aktoreekin solasaldia, 20:00etan. Moderatzailea: Susan Warner. Ume eta nerabeei zuzenduriko antzerki tailerra, 18:00etatik 20:00etara.

ELORRIO antzerkia
'Bi munduren artean' (Las de Afuera), 18:00etan, Arriola antzokian. Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna. OTXANDIO pailazoak

Gaztainerre Eguna, 18:00etan, Mekoletako Arkotxe kultur elkartearen. 'Gurekin konektatu' (Antxo eta Pantxo pailazoak). Txokolatea egongo da denentzat.

ZALDIBAR sanandresak
Nikaraguako dantzen erakustaldia, 18:00etan, udaletxearen alboan. Dantzetako Prest! disko festa, 19:30ean. Benito Lertxundi, 19:00etan, Olazar pilotalekuan. Koralarren 75. urteurrenaren harira.

ZORNOTZA dantza
'Su(i)rrealismoa' (Logela&Circle of Trust konpainiak), 20:00etan, Zornotza Aretoan.

ZORNOTZA eskulanak
Berdintasunaren inguruko eskulanak, Gazte Txokoan. Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna.

ZORNOTZA jokoak
Poteoa eta jokoak, 21:00etan, Pike parkean (Zornotzako Gazteak). Euskaraldia.

Azaroaren 27an

DURANGO antzerkia
'Winona & Grace' (Khea Ziater), 19:00etan, San Agustin kulturgunean. DURANGO musika Santa Zezilia kalejirak, Jaizale Durangaldeko txistulari

elkarteagaz. Bartolome Ertzilla musika eskolak lagunduta sorturiko 'Jaizale kalez kale, auzoz auzo neguan' egitarauaren barruan.

IURRETA lasterketa
XII. lasterketa familiarra.
11:00etan hasita, Askondon.
Luntxa, 13:30ean.

MALLABIA berbaldia
'Indarkeriaren aurpegi guztiak', 12:15ean,
Kontzejuzarrean. Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna.

ZALDIBAR sanandresak
Zaldibarko Arku Taldearen ate irekien jardunaldia,
11:00etatik 13:30era, Olazarren.
Eingou taldeagaz kalejira,
11:00etan.
XXIII. Neguko Azoka,
11:00etan, plazan.

ZORNOTZA merkatua
Euskal truke merkatua,
10:30ean, herriko plazan.
Ondoren, **enkantea.**
Euskaraldia.

Azaroaren 27ra bitartean

DURANGO erakusketa
'Zulo bat zeruan' (Karlos Martínez. B), Arte eta Historia Museoa.

Azaroaren 28an

ZORNOTZA merkatua
'Amagana' dokumentala eta ikuskizun musikatua (Bihotz Gorospe + Itziar Zabala), 18:00etan, Zelaietako auditorioan. Euskaraldia.

Azaroaren 29an

ZORNOTZA deialdia
'Kafetan berbetan'. Ahobizi eta Belarriprest guztiak elkarregaz berba egiteko hitzordua, 18:00etan, Zelaietako karpan. Euskaraldia.

Azaroaren 29an
BERRIZ berbaldia
Seme-alabei euren bizitzako gidaritza eta helduaroko erronkak euren gain hartzen laguntzeko baliabideak azaltzeko berbaldia,
18:00etan, Learreta Markina ikastetxean. Mankomunitateko Adikzioen Prebentzioaren Zerbitzuaren eskutik. Izena eman behar da, zentroan bertan edo 94 620 05 20 telefono zenbakira deituta.

IURRETA berbaldia
'El ejercicio físico como parte de tu día a día' (Hizlaria: Gurutze Frades).
19:00etan Ibarretxe kultur etxean. Ondoren, omenaldia eta luntxa.

Azaroaren 30ean

BERRIZ berbaldia
'DVA (Doc. Voluntades Anticipadas)' (Hizlaria: Aitor Monje), 19:00etan, Berrizko Kultur Etxean. 'Hitz egin dezagun heriotzaz' zikloaren barruan.

DURANGO berbaldia
'Mujeres mayores, poderosas frente a la violencia' ponentziaren proiektzioa, eztabaida eta hausnarketa, 17:30ean, Adragunean. Oneka/Emakume Pentsiodunak antolatuta. Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna.

ZALDIBAR sanandresak
Meza eta kontzertua, 12:30ean, San Andres parrokian. Ondoren, mokadua.
Jubilatuen bazkaria, 14:00etan.
Olazar Txapelketako pilota partiduak, 18:00etan, Olazar pilotalekuan.

ZORNOTZA mahai-ingurua
Amorebieta-Etxanoko emakume kirolarien mahai-ingurua, 18:00etan, Zornotza Aretoan. Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna.

Abenduaren 1ean

ABADIÑO bakarrizketa
'Nekatutak' (Antton Telleria), 19:00etan, Errota kultur etxean. Euskaraldiaren eta Euskararen Egunaren harira.

Abenduaren 2an

ABADIÑO tailerra
Txokolate eta txorizodun talo tailerra, 16:45ean, Traña-Matienako plazan.
Nagusien txapel jaurtiketa, 18:00etan.
Film laburren eta postal lehiaketan sari banaketa, 19:00etan, Errota kultur etxean. Euskaraldiaren eta Euskararen Egunaren harira.

BERRIZ pailazoak
'Urteak bete, abenturak bizi' (Pirritx, Porrotx eta Marimotots), 17:00etan, Berrizko Kultur Etxean. Euskaraldia.

ELORRIO lehiaketa
'24 ordu digitalean' film laburren XVII. lehiaketa. Abenduaren 2an, 17:00etan, jakinaraziko dituzte film laburren oinarri zehatzak, eta parte hartzaileek 24 ordu izango dituzte film labur bat aurkezteko.

ELORRIO jaia
Disko festa, gaztaina jana eta argazi erraldoia. 19:00etan herriko plazan. Euskaraldia.

IURRETA zineforuma
'San Martin sare hidrikoko emakumeen errealitatea' dokumentala, 18:30ean, Ibarretxe kultur etxean. Ondoren, **mahai-ingurua (Hizlaria: Ricardo Fernández Quintana-Hego Amerikako proiektuen teknikaria Medicus Mundi-Bizkaia elkartean).**

IURRETA musika
Mikel Azpiroz, 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

IURRETA musika
DJ Ainhoa, 18:30ean, Askondoko plazan.
Bentazaharreko Mutiko Alaiak, 19:30ean, herriko zehar. Euskaraldiaren eta Euskararen Egunaren harira.

Abenduaren 2ra bitartean

ZORNOTZA erakusketa
'Zure mugikorak ezkututzen duena' erakusketa, Zelaieta Zentroan.

Abenduaren 3an

ABADIÑO musika
Sukar erromeria, 17:30ean, probalekuan. Euskaraldia.

BERRIZ bertsoak
'Bederatzikoa' (Andoni Egaña + Xabier Lizaso), 19:00etan Berrizko Kultur Etxean.

ELORRIO emanaldia
'24 ordu digitalean' XVIII. film laburren lehiaketara aurkezturiko lanen emanaldia, 20:00etan, Arriola antzokian. Ondoren, sari banaketa.
ELORRIO kontzertua
KOP + Iheskide, 22:30ean gaztetxean.

IURRETA kontzertua
Elkartasun brindisa eta argazki erraldoia, 18:00etan, Iurretako Gazte Asanbladak 23 urte bete dituela ospatzeko. Ondoren, **poteo musikatua. HABI + Seiurte + Xaukena Xauk eta Tre Maldika,** 22:00etan, Gaztetxean.

IURRETA musika
Erromeria ibiltaria 19:00etan herriko zehar. Euskaraldia.

ZORNOTZA antzerkia
'Batetik bestera' (Benetan be). 17:30ean Zornotza Aretoan. Euskaraldia.

Abenduaren 4ra bitartean

DURANGO erakusketa
Naia Aristondoren margolanak, Ezkurdi erakustaretoan. Durangaldeko Artisten Elkarteak antolatuta.

Abenduaren 5era bitartean

ABADIÑO erakusketa
'Zientzia kalean' erakusketa ibiltaria, Traña-Matienako Traña plazan.

Zinema

:: Berriz KULTUR ETXEA

• **Hopper: el pollolibre**
barikua 25: 17:00
domeka 27: 17:00

:: Durango ZUGAZA ZINEMA

• **Historias para no contar**
barikua 25: 18:30/21:00
zapatua 26: 19:30/21:30
domeka 27: 19:30
astelehena 28: 18:00 /20:15
martitza 29: 18:00/20:15
eguztzena 30: 19:00

• **La mujer rey**
barikua 25: 18:00/21:00
zapatua 26: 18:00/21:00
domeka 27: 17:00/20:00
astelehena 28: 19:00
martitza 29: 19:00
eguztzena 30: 19:00

• **Un mundo extraño**
barikua 25: 18:00/21:00
zapatua 26: 17:00/18:00/21:30
domeka 27: 17:00/18:00/20:00
astelehena 28: 18:00/20:15
martitza 29: 18:00/20:15

• **The Big Rebel**
eguztzena 1: 19:00

• **Rigoletto (opera)**
eguztzena 30: 19:00

:: Elorrio ARRIOLA ANTZOKIA

• **Cerdita**
zapatua 26: 20:00
domeka 27: 20:00
astelehena 28: 20:00

• **Orkestra Iurtarra**
domeka 27: 17:00

:: Zornotza ZORNOTZA ARETOA

• **Unicorn wars**
domeka 27: 20:00
astelehena 28: 20:15

• **Ícaro y el minotauro**
domeka 27: 17:00

• **HIVE**
martitza 29: 20:15

“Mamadou Diaren testigantzaren modukoak gizarteratzea garrantzitsua da; horrelakoak ezagututa errazagoa da ingurua ulertzea”

Mamadou Diaren '3052' liburua euskaratu du Itziar Larrinaga abadiñarrak; KCD Gobernu Kanpoko Erakundeagaz kaleratu du euskarazko bertsioa



LITERATURA • ARITZ MALDONADO
3052 kilometrok banatzen dituzte Dakar eta Murtzia, eta, hain zuzen ere, horixe da Mamadou Dia senegaldarrak bere bizipenak kontatzen dituen liburua izendatzeko erabilitako erreferentzia. Orain hamar bat urte kaleratu zuen '3052' liburua. Lagun bati berba eman zion, Europarako bidaiari buruz gero, liburu batean kontatuko zuela, “eurek jakiteko zelako bidaiari izan zen”. Orduetik, Diak berbalduak ere eman ditu ikastetxeetan. Itziar Larrinagak hemen berdina egin zitekeela iritzita, liburua euska-

ratu zuen “2018-2019 inguruan”. Urrian kaleratu zuen KCD Gobernu Kanpoko Erakundeak, Cine Invisible zine jaialdiaren barruan.

Zergaitik erabaki zenuen '3052' euskaratzea?

Mamadou Dia Benicásimén egiten den Rototom musika jaialdian ezagutu nuen orain urte batzuk. Bertako gune bateko arduraduna zen; bera eta berak lan egiten zuen Gobernu Kanpoko Erakundeak ezagutzen nituen, eta lan itzela egiten dutela iruditzen zait. Besteak beste,

Nerea Pérez Arrospide euskal herritarraz [kooperantea zen. 2015ean hil zen, auto istripuan] batera, kultur etxea eraikitzeko proiektua zuen. Eta liburua ere ezagutzen nuen. Gaztelaniazko bertsio hori eskola eta institutuetan zabalduz lan itzela egiten zebilen Dia, eta pentsatu nuen hemen euskaraz berdina egin zitekeela. Ni euskara irakasle ohia izanda, pentsatu nuen, zergaitik ez dut neuk euskaratzen?

Bestalde, gida didaktiko bat eta bestelako materiala ere badago liburuaz gainera, aurkezpe-

netarako. Mamadou Senegalen bizi da, baina hartu-eman handia du Euskal Herriagaz. Urtarril eta otsail inguruan hona aurkezpenak egitera etortzea da asmoa. **Mamadou ezagututa ere, zelako erronka izan da zuzentzat itzulpena egitea?**

Erantzukizun handia izan da niretzat, eta baita erronka ere. Berak bere berbekin adierazi gura zuen hori hartu, eta bere bizipen horiek neure hizkuntzara ekarri ditut. Berak transmititu gura zuena adieraztea lortu behar nuen. Mamadouk berak

“Berak bere berbekin adierazi gura zuena hartu eta bizipen horiek neure hizkuntzara ekarri ditut”

Istorio gordina kontatzen du.

Bidaiako pasarteak oso gogorrak dira. Lagungarria egin zait inguruan horrelako esperientziak bizitako jendea edukitzea.

Ibrahima Baldek eta Amets Arza-llusek idatzitako 'Miñan' liburuak sona handia lortu du. Laguntzen du horrelako testigantzak ezagutarazteak?

Horrelakoak gizarteratzea garrantzitsua da. Guk gure kultura eta gure ingurua ezagutu ditza-kegu, eta horri eskerrak ingurua ulertu. Baina horiek bakarrik ezagututa, gatx egiten zaigu besteak ulertzea. Antzeko beste liburu bat irakurri nuen eta protagonistak bertan aipatzen zuen ariketa egin zuela idatzitakoa ahazteko.

Inguruan jatorri afrikarreko jende gehiago dugu, hainbatek horrelako esperientziak biziko zituzten, baina, ezagutzen ditugu?

Ezetz esango nuke, izan ere, horretarako denbora tarte bat hartu behar baikenuke. Entzuteko. Baina gure bizimodu arin honetan ez dugu horretarako denborarik hartzen. Eta horrelako zerbait bizi izan duen norbait gertu egonda ere, ez genuke jakingo ez dugulako galdetzen; izan daiteke ez kontatzea ere, istorio gordinak direlako. Esango nuke ausartenek baino ez dituztela horrelakoak kontatzen, askotan familietan ere ez direlako ezagutzen. Mamadouk promesa bat egin zuen, bidaiari amaituz gero liburu batean idatziko zuela: 'Bidaiari honetatik bizirik ateratzen banaiz, liburu batean idatziko dut, zuek jakin dezazuen zelakoa izan den'.

'Plateruena ta gero zer?' dinamika amaitutzat eman du bere ibilbidea

Dinamika azpimarratu du "sentsazio gazi-gozaogaz" amaitu duela bere ibilbidea

KULTURA • J. D.

'Plateruena ta gero zer?' dinamika bere ibilbidea amaitutzat eman duela jakinarazi du asteon ohar baten bitartez. "Sentsazio gazi-gozaogaz" amaitu dutela azpimarratu dute. "Oraintsu jakin dugu zelakoa izango den Plateruena berria. Udalak baditu kudeaketa eredu bat eta proiektu bat. Gure proiektuaren gidalarro nagusienetako asko batzen baditu ere, ez da 'Plateruena ta

gero zer?' dinamikatik ondutako proiektua gauzatuko", azaldu dute. Durangoko Udalak Plateruena "urtea amaitu aurretik" zabaltzeko asmoa duela iragarri zuen orain aste batzuk. "Proiektu parte hartzaile izango dela azaldu digute, eta gonbidapena egin digute pare bat ordezkari gazi proiektu berrian parte hartzeko. Lerro nagusiak konpartitzen baditugu ere, zehaztasunetan sartuta zalantzak sortu zaizkigu;

bestetik, dinamikaren ibilbidea amaitu dela ikusten dugu", argitundute.

Oharraren amaieran, eskerrak eman gura izan dizkiete proposamena osatzeko laguntza eskaini duten guztiei. "Zorte ona opa diogu Plateruena berriari, espero dugu euskal kultura sustatzeko lekua izatea, komunitate bat sortzeko gaitasuna edukitzea eta gune euskalduna izatea", gaineratu dute.



Dinamikaren ondorioen aurkezpenean ateratako argazkia.



Durangoko Azokako guneetako arduradunak.

Durangoko Azokak "ohiko dimentsioa" hartuko du 57. edizioan

930 nobedade egongo dira aurtengo Durangoko Azokan; abenduaren 7tik 11ra izango da

DURANGOKO AZOKA • ARITZ MALDONADO

"Pandemia aurretik ezagutzen genuen Durangoko Azoka" berreskuratuko delakoan daude Gerediaga elkarteak. Zenbakieki dago-kienez, behintzat, "ohiko dimentsioa" berreskuratuko du Beñat Gaztelurrutia Gerediagako koordinatzailearen esanetan. "176 parte hartzailek 248 stand ipiniko dituzte. Nobedadeen artean 689 liburu, 141 musika produktu, 46 aldizkari eta bestelako 54 nobedade egongo dira", azaldu du asteon eginiko prentsaurrekoan. Urte "berezi" biren ondoren, euskal kulturaren "eztanda" ospatu gura dute. "Eus-

kal kultura bor-bor izango dugu edizio honetan. Azken urte bietan, testuinguru konplikatu izan arren, azokari eustea lortu dugu, denon taupadari eskerrak. Orain euskal kulturaren plazari bizia emateko momentua helduko da, bere gune eta espazio guztietan", gaineratu du Gaztelurrutiak. Durangoko Azokaren 57. edizioa abenduaren 7tik 11ra egingo dute; 7an Ikasle egunagaz hasiko dute. "Garrantzitsua da ikasle eguna berriro egin ahal izatea, kulturaren transmisioa gazteeni egin ahal izateko", esan du Gaztelurrutiak.

DA PRO! azoka

Durangoko Azokak aurretik eta ondoren ere izango ditu ekitaldiak. Abenduaren 5ean DA PRO! sortzaileentzako topaketa profesionalak hartuko dituzte San Agustin kulturagunean eta Bizenta Mogel bibliotekan. Musikariek eta familia-ikuskizunen sortzaileek euren proiektuak aurkeztu ahal izango dituzte.

Bestalde, abenduaren 12tik aurrera, 'Zu non han DA!' ekimenagaz Azokako nobedadeak Euskal Herri osoko 132 saltokitan egongo dira. Azokak irauten duen egunetan online denda ere egongo da.

24 Ordu Digitalean, abenduaren 2tik 3ra

Film laburren lehiaketa ezagunaren XVII. edizioa da aurtengoa; abenduaren 3an egingo da emanaldia

ZINEMA • ARITZ MALDONADO

24 Ordu Digitalean film laburren lehiaketaren edizio berria aurkeztu dute asteon; XVII. edizioa abenduaren 2tik 3ra egingo dute. Ohikoa den moduan, oinarri zehatzak jakin eta parte hartzaileek 24 ordu izango dituzte film labur bat aurkezteko. Abenduaren 2an Arriolan egon beharko dute parte hartzaileek, 17:00etan oinarrien berri izateko; filmeen emanaldia abenduaren 3an egingo dute, 20:00an, Arriolan bertan. Antolatzaileek ekimen

errotua dela nabarmendu dute prentsaurrekoan. "Parte hartzea beti izan da ona; Durangaldeko parte hartzaileak daude eta geroago eta elorriar gehiago ere animatzen dira", azaldu du Karlos Gómez antolatzaileak. Idoia Buruaga Elorrioko alkateak sortzen den giroa nabarmendu du: "Sormena eta originaltasuna saritzen dira bertan, baina ondo pasatzea da garrantzitsua". Sari nagusia 700 eurokoa izango da eta finalistentzat 500 euroko beste sari bi egingo dira.



Karlos Gómez eta Idoia Buruaga.

Gai librean

Beude

Buruz dakit elizkizun bateko eskalata. Amama eta tiarekin joaten nintzen mezatara umetan, eta erritualaren hezurdura ondo oroitzen dut. Grabatuta dauzkate abadearen hitzartzeak eta kantuen letrak. "Eta ez gu tentaldira eroan" dio "Gure Aita" ereserkiak, eta aitortza bat egitera nator gaurkoan: (kapitalismoaren) tentazioari ezin eutsita, Gabonetako loteria erosi dut lantoki alboko kioskoan.

Kartulina zatiari so, Ama Birgina dakusat, Jesus haurra altzoan daukala, aurpegia zurbil eta begirada tristearekin. Andra Mariko altareko irudiei nola, begiratzen diet ama eta semeari, eta neure buruari galdetzen diet ea helduarora iritsi naizen espainiar estatuari (beste) 20 euro oparitu dizkiodan honetan. Gaztetzartela



Miren Erdoiza Mujika
Irakaslea

Kartulina zatiari so, Ama Birgina dakusat, Jesus haurra altzoan daukala, aurpegia zurbil eta begirada tristearekin

Loteriari heldu diot oraingoan, ezinezkoa baitzait zutabe bakar batean bekatu gehiagoren errelatoa egitea

iraungita, estreinakoz erosi dut loteria. Sekula hitzik trukatu ez dudana lankideari whatsapp bidali diot erre-kadua egin diezadan, eta eskuratu dut bost zifradun tiketa.

Kristoren jaiotzarekin batera iragarriko dituz e Espainiako telebista kate publikoan irabazle zenbakiak. Eta bizitzak aurrera egingo du, orain arte egin duen antzera. Umezartotik helduarora bidean, Elizak Gaztetxe eta antzokiengatik ordezkatu ditut. Hala ere, badirudi berauek, Jesusen antzera, hilda daudela, edo hil egin dituztela. Bepizkundea datorrela dirudi, ordea; ea ez den hiru egunetako izaten! Urteurrenak ospatu nahi baititut, ez Pazko Egunak.

Tentaldiak egon badaude; loteriari heldu diot oraingoan, ezinezkoa baitzait zutabe bakar batean bekatu gehiagoren errelatoa egitea.

Aitor Elordik binakako txapelketa nagusia jokatu du eta Aimar Morgaetxebarriak promozio mailakoa

Mallabitarrek Jose Javier Zabaleta izango du atzelari eta zornotzarrak Joanes Bakaikoa aurrelari. Morgaetxebarriak Zornotzako Amorebieta IV pilotalekuan eta zaleen aurrean jokatu du, abenduaren 2an, urtarrilaren 6an eta otsailaren 3an

PILOTA • J.D.
Durangaldeko pilota zorioneko dago. Asteon binakako txapelketa nagusia eta promozio mailakoa aurkeztu dituzte eta bietan eskualdeko ordezkariak daude: Aitor Elordik txapelketa nagusia jokatu du eta Aimar Morgaetxebarriak promozio mailakoa.

Elordik lau eta erdian egindako lan aparta —hirugarren amaitu du— ez da oharkabean pasatu eta merezimendu oso sartu dute binakako nagusian, bere ibilbidean lehenengoz. Jose Javier Zabaleta izango du atzelari, gaur egun dagoen atzelaririk onenetarikoa.

Bestalde, Morgaetxebarriak profesionaletan debuta egin eta hilabete gutxira egingo du debuta promozio mailako txapelketan. Zornotzarrak Joanes Bakaikoa nafarragaz osatuko du bikotea. "Oso gustura nago Bakaikoagaz bikotea osatuta. Oso tratu ona daukagu. Ea elkarregaz txapelketa polit bat egiten dugun", adierazi du zornotzarrak.

Partiduak, Zornotzan

Eskualdeko pilotari biek Zornotzako pilotalekuan jokatu dute. Morgaetxebarriak abenduaren 2an, urtarrilaren 6an eta otsaila-

ren 3an, eta sailkatzen bada, baita martxoaren 3an ere. Elordi-Zabaleta bikotea abenduaren 2an arituko da Zornotzan, Ezkurdiaren eta Martijaren kontra. Partiduak ikus-

teko abonua edo sarrerak *entradasfronton.com* web orrialdean eskuratu daitezke jadanik. Zornotzan ere erosi daitezke, Urtza Tabernan eta Venecia Kafetegian.



Elordik orain sei urte debutatu zuen profesionaletan eta Morgaetxebarriak aurtengo uztailean debutatu du.

Mendibeltzek eta Beti Golek derbia jokatu dute areto futbolean, zapatuan

ARETO FUTBOLA • J.D.

Durangaldeko areto futbolariek emakumeetan dituen ordezkari biek derbia jokatu dute asteburuan. Durangoko Mendibeltzek eta Zornotzako Beti Golek Landako kiroldegian neurtuko dituzte indarrak,

Oraingoz, Beti Gol liga hobea egiten dabil eta gorago kokatuta dago sailkapenean

zapatuan, 18:00etan. Beti Gol da derbia irabazteko faborito. Orain arte lau partidu irabazi eta beste hainbeste galdu ditu eta sailkapenean erdian kokatuta dago. Mendibeltz beherago dago, 12. tokian, orain arte partidu bi irabazita. Oraingoz gehiago kostatzen ari zaio partiduak aurrera ateratzea, baina etxean jokatu du derbia eta orain arteko garaipen biak Landako kiroldegian lortu ditu.

Zapatuan umeak eta domekan nagusiak, ziklo-krosa asteburu osoan izango da protagonista Abadiñon, Muntsaratz inguruko zirkuituan

Domekan, emakumeen eliteko lasterketa 11:30ean hasiko da, eta gizonena 12:30ean

ZIKLO-KROSA • J.D.

Abadiñoko Ziklo-kros Sariak zortzigarren edizioa egingo du asteburu honetan. Mailarik maila, Muntsaratzeko zirkuituan 700 bat txirrindulari batzea itxaroten dute Abadiño Muntsaratz Txirrindulari Kirol Klubeko antolatzaileek.

Ekimena egun bitan banatuko dute. Zapatua umei zuzenduta egongo da. Txiki Kopa nahiz umeentzako Bizkaiko ziklo-kros txapelketak egingo dituzte benjamin eta kimu mailetan eta haur kategorian. Probak 11:00etan hasiko dira. "Kirolagaz konprometituta gaude eta, aldi berean, umei eta gazteei emakume kirolarien erreferentziak eskaini gura dizkiegu. Asteburuan, horiek diziplina gogor eta lehiakorrean ikusteko aukera izango dugu", azpimarratu du Patxo Campo udaleko kirol zinegotziak.

Domekan, kadeetatik master mailara artekoen txanda izango da. 09:30ean, master mailako



Abadiñoko ziklo-krosak zortzigarren aldia egingo du aurt.

lasterketa hasiko da. Ondoren, 10:30ean, kadeteen txanda izango da. 11:30ean, emakumeen eliteko eta 23 urtez azpiko lasterketari ekingo diote; baita junior mailako mutilen probari ere. Azkenik,

12:30ean, gizonen eliteko eta 23 urtez azpiko lasterketa hasiko da.

Lasterketak 3.079 metroko zirkuituan egingo dituzte; horietatik 271 metro asfaltoan izango dira eta 2.808 metro, zelaian.



Gurutze Frades Cozumel Ironmaneko helmugan.

Fradesek garaipen batez agurtu du denboraldia

Mexikoko Cozumel Ironmana irabazita amaitu du aurtengo urte berezia: munduko txapelketa bitan parte hartu du

IRONMANA • J.D.

Gurutze Fradesek merezi duen moduko amaiera eman dio denboraldiari Mexikoko Cozumel Ironmana irabazita. Latz sufrituta eta ohikoa duen moduan korrika saioan sekulako maratonia eginda lortu zuen garaipena joan zen asteburuan. "Urteari ezin nion amaiera hoberik eman eta oso pozik nago", dio iurretarrak. 2022a

gogorra bezain zirrargarria eta emankorra izan da. Munduko txapelketa bitan parte hartu du eta goi mailan aritu da bietan. Maiatzean bederatzigarren geratu zen Utahn (AEB), eta urrian hamabosgarren amaitu zuen Konan. Orain ondo merezitako atsedena hartuko du datorren denboraldia-ri ekin aurretik.

Txokolate tabletak salgai, Movember mugimenduagaz bat egiteko

Durango Rugby Taldeak MovDurango izeneko txokolate tabletak kaleratu ditu



Ekimeneko sustatzaileak txokolate tabletekin, Rugby Tabernan.

ELKARTASUNA • JOSEBA DERTEANO

Durango Rugby Taldeko kideek urteroko ohiturari eutsi diote. Movember mugimenduagaz bat egin da, egitasmo berezi bat ipini dute martxan. MovDurango izeneko txokolate tabletak kaleratu dituzte, salmenta horretatik ateratzen den dirua prostatako eta barrabiletako minbiziaren prebentziora eta ikerketetara bideratzeko. Tabletok 10 euroan eskuratu daitezke, Rugby tabernan eta Saltsan catering dendan (Kurutzia galea). Andra Marian ere egongo dira, zapatu honetan. Horrez gainera, Mov-eskumuturrekoak ere ipini dituzte salgai, euro bian. Bestalde,

Txokolate tabletak 10 euroan eskuratu daitezke, Rugby Tabernan eta Saltsan catering dendan

abenduaren 1ean jai berezi bat egingo dute: Mov Day. Pintxopote berezi bat, photocalla, opari zozketa eta otzara baten zozketa egingo dituzte Saltsan, Meso Berria eta Izarbide establezimenduak lagun dituztela.

Ekimena babesteko deia

Durango Rugby Taldeak Movember mugimenduagaz bat egitera

animatu ditu herritarrak: "DRT taldetik gainerako klubetako jokalarik, zale zein zuzendaritza kideak eta Durangoko gizarte guztia parte hartzera gonbidatzen zaituztegu. Zelan? Bibotea utzita, argazkiak aterata eta sare sozialetan denekin partekatuta", argitu dute. Horrez gainera, mugimenduko kide egitera ere deitu dute, www.movember.com web orrian izena emanda.

Movember fundazioa 2003an sortu zen, Australian. Gazte talde batek bibotea hazten uzteko erabakia hartu zuen, ekintza sinboliko horregaz gizartea prostatako minbiziaren arriskuez kontzientziazteko.

Liderraren kontrako neurketak Tabirako Baqueko talde bientzat

Gizonak Errioxara joango dira, partidu denak irabazi dituen LBC Cocinas taldearen etxera; emakumeek mailako saskiratzaille nagusia den San Ignacio hartuko dute etxean

SASKIBALOA • J.D.

Asteburu honetako ez da edozein jardunaldia Tabirako Baqué klubarentzat. Talde nagusi biek euren ligetako liderren kontra jokatu dute.

Euskadiko Ligan, emakumeek San Ignacio liderra hartuko dute, zapatuan, 19:00etan, Landako kiroldegian. Orain arte partidu bakarra galdu dute nafarrek. Durangarrek launa garaipen eta porrot dituzte, baina une honetan bolada onean daude, azkenengo

neurketa biak irabazi eta sailkapenean gora egin dute eta.

EBA mailan, gizonak Errioxara joango dira zapatuan, orain arteko zazpi partiduak irabazi dituen LBC Cocinas taldearen kantxara. Tabirako-Baqué bederatzigarren dago sailkapenean, hiru garaipen eta lau porrotegaz. Azken neurketa irabazi egin zuen etxean Kantabriako Pielagos taldearen kontra partidu borrokatu baten ostean eta animo biziberrituekin egingo dio aurre mailako oilarrari.



Tabirako neskek zapatuan jokatu dute ligako partidua.

Jokaldia

Topera

Bai. Horrela da. Aurten, zorionez, zenbait txapelketatan gure taldeak topera ari dira, buru-belarri. Batzuk emaitza onekin eta beste batzuk oraindik bide zuzena bilatzen. Baina, hori bai, dena pil-pilean dago.

Nesken inguruan, Tabirako Baqué bere bigarren garaipena lortu zuen jarraian. Partidu garrantzitsua zen taldearentzat, garaipen honekin atzean uzten zuelako beheko postuetan talde nafarra eta, sailkapenaren erdiko postuetako multzoan buru-belarri sartzen delako. Gora begira jartzeko aukera dute. Eta garrantzitsuena, jarraian lortutako garaipen honek taldearentzat beharrezkoa den konfiantza gehitzen duelako.

Era berean, Zornotza eta Zaldua taldeak ere topera dabilta zein bere mailetan. Ia horrela jarraitzen duten datozen



Unai Zamalloa Zubiaurre
Saskibaloia

Zilarrezko LEB mailan Zornotza, betiko moduan, goiko postuetan dabil. Hiru garaipen lortu ditu jarraian

EBA, Tabirako Baquék garaipen garrantzitsua lortu zuen azken partiduetako bolada txarra hautsita

asteetan ere eta urtea ondo amaitzeko modua duten.

Mutiletan, Zilarrezko LEB mailan Teknei Zornotza, betiko moduan, goiko postuetan dabil. Hiru garaipen lortu ditu jarraian eta azkena, gainera, Cazoo Baskoniaren kontra. Ezinbesteko garaipenaren bila eta entrenatzailea kolokan izanik zetorren talde arabarra. Partidu

gogorra eta borrokatua izan zen baina garaipen garrantzitsua lortu zuten zornotzarrek. Horrela, taldeak goiko postuetan irmo jarraitzen du.

EBA mailan Tabirako Baqué ere garaipen garrantzitsua lortu zuen Raisan Pas Pielagos talde kantabriarraren aurka. Azken partiduetako bolada txarra hausteko, partidu borrokatua jokatu zen. Ez zen partidu bikaina izan, baina bai defentsatik ondo landutakoa, eta hortik heldu zen garaipena. Horrek aurkarien erasorako joko asko zaildu zuen eta etxeko garaipen garrantzitsua bideratu.

Azken lerroak Surne Bilbao Basketentzat dira. Partidu borobila jokatu zuten Urbas Fuenlabradaren kontrako garaipenean. Defentsan egindako lan bikainak partidu ederra ekarri zuen eta 109 puntu sartzea lortu zuten. Arin esaten da. Topera!

Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

Batu Anbotoko whatsapp taldera



Bidali alta
688 635 041
telefono zenbakira

* Izan zaitez berriemaile ere.
Bidali zure argazki eta bideoak

> anboto



Botikak

BARIKUA, 25 · 09:00-09:00

SARRIA, SASIKOA 17 - DURANGO

RUIZ, EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 26 · 09:00-09:00

UNAMUNZAGA, MURUETATORRE 2C - DURANGO

GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-13:30

SARRIA, SASIKOA 17 - DURANGO

CAMPILLO, MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

GAZTELUMENDI, J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO

BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO

DE DIEGO, INTXAURRONGO 22. - DURANGO

BALENCIAGA, EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA, BERRIO-OTXOA 6 - ELORRIO

FARMAZIA MATIENA, TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO

RUIZ, EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN, BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 27 · 09:00-09:00

CAMPILLO, MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 28 · 09:00-09:00

GAZTELUMENDI, J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 29 · 09:00-09:00

ETXEBARRIA, MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO

GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 30 · 09:00-09:00

BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO

GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

EGUENA, 1 · 09:00-09:00

DE DIEGO, INTXAURRONGO 22. - DURANGO

GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENEO 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGIA

Zorionak, **Garazi (913. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
661 40 14 00
gozatudurango@gmail.com
Gozatu Gozotegia
gozaturgozotegia



Azaroaren 24an **Yosu Echevarriak** 38 urte egin ditu. Zorionak, fenomeno, jarraitu horrela!



Zorionak, **Jurgi!** Azaroan 7 urte egin dituzu. Oso mutil handia egiten ari zara. Musu handi bat maite zaitugun guztion partez.



Zuri be ailegau jatzuz 30ak, **Ander**. Hemetik aurrera datoz komeriak, beraz argi ibili. Ondo ein dozu trialeko motorra alde batera utzi eta pureten motorra erosten. Oin onduen dekozune animau ta domingero moduen igandero pasiera. Nori okurrizten jako negue datorrenien motorra erostie, ene... Abaño bati bakarrik. Ondo pasau egune eta ongi etorri 30ekuan "club"-era.



Abenduaren 2an **Luciak**, Biak-bat kirol klubeko futbolistak, 14 urte egingo ditu. Zorionak eta segi horrela. Musu bat etxeoen partez.



Zorionak, **Ametz!** 7 urte gaur, azaroak 25. Eskerrik asko zazpi urtien etxeuon bizimodue hankaz gora ipintearren! Hi haz hi tipue!

Eguraldia

ZAPATUA ↓ 16° / 6° ☁

ASTELEHENA ↓ 11° / 8° ☁

EGUAZTENA ↓ 12° / 6° ☁

DOMEKA ↓ 17° / 7° ☁

MARTITZENA ↓ 12° / 7° ☁

EGUENA ↓ 13° / 6° ☁

"Droneak gidatzea, zaletasuna baino gehiago, pasioa da niretzat"

Aleix Garridok droneak gidatzen ditu. Durangaldeko 4-5 lagun batzen dira egunero, droneak aireratzeko eta zaletasuna partekatzen; mendi ingurura joaten dira



Aleix Garrido Martinez
Drone gidaria
BARTZELONA | 1992

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Aleix Garrido orain dela urte bi hasi zen droneen munduan murgiltzen, Youtuben bideoak ikusita harra sartu ondoren. Orain, elkarte bat sortzea du etorkizuneko erronka.

Zenbat denbora eskaintzen diezu droneei?

Egunean bizpahiru ordu entrenatzen ahalegintzen naiz. Betidanik gustatu zait argazkigintza, ikus-entzunezko edukien sorkuntza, eta drone batean kalitatezko argazki kamera ipini zitekeela jakiteak mundu bat zabaldu zidan. Droneak gidatzea,

zaletasuna baino gehiago, pasioa da niretzat.

Non aireratzeko dituzue?

Normalean, mendira joaten gara, hegaz egin ezin daitekeen eremuetatik urrunduta.

Zelan dago araututa droneen erabilera?

Webgune bat erabiltzen dugu aire espazio mugatuak zeintzuk diren jakiteko. Aireportuak dauden eremuak eta barruti babes-tuak (parke naturalak, babesturiko espezieak dauden tokiak...) errespetatu egin behar dira. Azken finean, beste inoren hegaldi operazioerik ez eragozteko, horixe

hartu behar da kontuan. Dena dela, baimenak eskatu daitezke eta ia edozein tokitan hegan egin daiteke, Ertzaintzagaz koordinatuta. Adibidez, ikus-entzunezko lan baterako irudiak hartzeko.

Zuk ikus-entzunezko lanak sortzeko erabiltzen dituzu droneak?

Bai. Mendian, hondartzan... irudiak grabatzeko, bideoak neuretzat egiteko edo edukiak sortu eta sareetan zabaltzeko.

Drone lasterketak ere egiten dituzu.

Bai. Oztopo lasterketak lakoak egiten ditugu, eta oso drone arinak eta indar handia dutenak erabiltzen ditugu. Ibilbide estuak dira eta

ordu asko eskaini behar zaizkio trebetasuna hartzeko. Guk FPV (First Person View) estiloko droneak erabiltzen ditugu, errealitate birtualean ikusteko betaurrekoekin. Wifi transmisore bat duen bideo bategaz komunikatzen den antena baten bitartez, bertatik bertara ikusten dugu dena. Dronean bertan joatea lakoak da sentsazioa, izugarria. Oso errealak.

Zenbat drone dituzu?

Sei. Horietariko bi lasterketarako, beti prest daudenak. Besteak, filmazioak egiteko ekipoagaz erabiltzeko dira. Drone mota asko dago. Barrualdeetan erabiltzeko droneak ere badaude. Horiek helizeak babestuta dituzte eta lasaiago hegan egiten dute. Grabazioak egiteko, bereziki prestaturiko drone estabilizatua ere badaude, edo fumigatzeko erabiltzen direnak, militarrek... Erabilera asko dituzte.

Ez dago droneetarako zaletasun handirik, mundu ezezaguna delako neurri handi batean

Berrikuntzek beldurra edo mesfidantza sortzen duten arren, onura askotarako erabiltzen dira droneak, ez bakarrik erabilera militarra emateko.

Inoiz galdu duzu dronerik?

Bai. Mendian, adibidez, larregi urrutzeagaitik. Itsasora, errekar... ere jausi zaizkit batzuk.

Zelako zaletasuna dago Durangaldean?

Ez dago zaletasun handirik, mundu ezezaguna delako neurri handi batean. Dani Doncel eta ni neu lanean gabiltza elkarte bat sortzeko. Droneak ezagutaraztea eta zaletasuna bultzatzea da gure helburua. Droneekin hegan egiteko aukerak sortu eta lantzea gura dugu. Umeentzat zaletasun polita dela iruditzen zait, asko ikasteko aukera ematen du.

Droneak aireratzeko leku polit bat?

Egusenti eta ilunabar guztiak dira politik grabatzeko, kostan zein mendian. Euskal Herrian leku zoragarri asko dugu horretarako.

Politikan

Ibai Zabala
Gandarias
Irakaslea



Ez ni bezalakorik, mesedez

"Lehen aldiz egin duzu negar bere aurrean. Lasaitua hartu duzu". Horixe izan zen ganbarako laneko gaia duela aste bi Durangon egin zen Bertsolari Txapelketa Nagusiko saioan. Negarra. Bere aurrean.

Gaia entzun nuenean, neure burua irudikatu nuen egoera horretan; hartuko nukeen lasaituan. Ditudan gabezia ugarien artean hori ere baitago: zenbaiten edo norbaiten aurrean negar egin ezina. Berdin dio norbait hori nire ama, edo zenbait horiek nire lagun minak diren; barnean tristeziaz beteriko laku bat senti dezaket, baina ur hori guztia hor gelditzen da, gordean. Eta begiak siku. Hori, noski, ez da ausaz gertatzen den zerbait, heziketaren eta askotariko bizipenen ondorio baizik.

Berriren jaio nintzen duela 35 urte, baserri batean. Frontoia aukeratu nuen aisialdirako: harri bat eskuz astintzea. Testosterona han eta hemen. Inguruan nituen gizonak ez zuten negarrik egiten, ez zuten sekula beren hauskortasunaren zantzurik erakusten. Ez negarrik egin, ezta musurik eman ere; are gutxiago beste gizon bati. Ume zakildunoi, behin adin batera ezker, "emoidek eskue, gizonen moduen" edo "gizonak ez juek negarrik eitten" modukoak esaten zizkiguten. Eta umeek informazio guztia xurgatzen dute, baita beren inguruko helduen parekoak izan nahi ere. Eta hona hemen horren guztiaren emaitzetako bat: ni.

Beti pentsatu izan dut patriarkatuaren produktu perfektua naizela, eta gorroto dut egia hori. Beraz, hezi ditzagun umeak malkoan, hauskortasunean eta enpatian, etorkizunean ere lasai egin dezaten negar; ez daitezten ni bezalakorik izan.

ESKELAK

946 816 558 · anboto@anboto.org

anboto.org/eskelak

Anbotokideek deskontua izango dute.

